# Deba

ETORKIZUNA ORAIN

2019KO AZAROA



# 100 egitasmo herritarron bizi-kalitatea hobetzeko

Iritsi zaigu gure Gobernu Plana aurkezteko eta agindutakoak nola beteko ditugun azaltzeko unea. Jarraian zehaztuko diren egitasmoak osatzeko herria izan dugu solaskide; herritarrek jakinarazi dizkigute dituzten arazoak eta beharrak. Guztion eskaerak eta ekarpenak izan dira gure planaren oinarri, eta orain, gure konpromisoa haiek zintzoki betetzea da.

Pertsonetan jarri du arreta gure Gobernu Planak eta beren bizi kalitatea hobetzea du helburu. Horretarako, hasitako prozesu parte hartzailearekin jarraitu nahi dugu, eragile guztien, alderdi politikoen, udal langileen, norbanakoen zein Udal Gobernuaren arteko elkarrizketa eta lankidetza indartuz. Hartu-eman horrek batasuna eta nortasuna emango baitio geure herriari; elkartasunezko nortasuna: adinari, berdintasunari, aniztasun orori, ingurumenari, kulturari edota euskarari begirunea zor diona. Gure bideari ekiteko eta ametsak egia bilakatzeko, hona hemen egingarriak diren 100 neurri.

## 100 proyectos para mejorar la calidad de vida de la ciudadanía

Nuestro Plan de Gobierno nace de la participación de la ciudadanía. Tanto hombres como mujeres, jóvenes y mayores, habitantes del casco urbano como de barrio, han expresado sus problemas y necesidades que hemos recogido en nuestro plan. Plan que tiene como objetivo mejorar la calidad de vida de todas las personas. Queremos mantener el proceso participativo para consolidar una comunidad más unida y en la que valores como la solidaridad y cooperación constituyan parte esencial de nuestra personalidad: personalidad inclusiva, igualitaria, feminista, sostenible y euskaldún.

# Etorkizuneko Deba marrazteko Gobernu plana



**GILEN GARCIA BOYRA** DEBAKO ALKATEA

Pozik eta datozen lau urteetarako gogotsu, horrela sentitzen naiz Gobernu plana zuei aurkeztu behar dizuedan momentu honetan. Ez da lan makala izan, aitortzen dizuet, bai ordea, interesgarria eta emankorra. Gainera onartu beharra daukat hartutako konpromisoak bertigo puntu bat ere ematen duela, ez baita erraza egin nahi dugun guztia egingo dugula hitz ematea, baina datozen urteetarako oinarri sendoa jarri dugula sinistuta nago. Herritarrek merezi duzuen eta udal gobernu taldeko kideok nahi dugun etorkizuneko Deba.

Gauzak ondo egin nahi ditut, badakizue hori ezagutzen nauzuenok. Kargua hartu nuenean topatu nuen egoera zuzentzera bideratu behar izan dut energiaren parte bat, baina hori horrela izanda ere, egunerokoei erantzuteko tartea hartu dut eta baita estrategikoa den Gobernu plan hau udal gobernuko kideekin lantzeko ere. Eta hori, udal langile eta zuokin, herritarrokin, partekatzeko ere. Izan ere, zeinek daki debarrok baino hobe zer behar dugun gure herrian?

Eta egin dugu ariketa. Egungo errealitatetik abiatuta hasi gara biharko Deba marrazten. Horretarako da plan hau. Datozen lau urteotan egingo dugunaren egitasmoa, gure lanaren ardatza eta aldi berean etorkizuneko Deba eraikitzeko oinarri sendoa. Aje zaharrak atzean utziko dituena.

100 neurriz osatuta dago gobernu plana. Gehiago ere izan zitezkeen, baina ez dugu nahi zerbait itxia izatea. Dinamismoa gustatzen zait eta hau ere dinamikoa izateko helburuarekin sortu dugu. Ibilian joango zaizkigu, guri, baina baita zeuoi ere behar berriak sortzen eta horiek ere lekua izango dute gure jardunean.

Orain baino lehenago ere esan dut, debarron bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko prestatzen ari ginela plan hau, etorkizunerako herria eraikitzen. Bai, etorkizunari begira ari gara lanean, gaurdanik hasita. Badakigulako zer nolako Deba amesten dugun eta amets hori errealitate bihur dadin hasiak gara jada lanean.

Jarriko ditugun oinarri sendo hauekin herri demokratikoagoa, justuagoa, orekatuagoa, garbiagoa, euskaldunagoa, feministagoa, inklusiboagoa... eraikiko dugu, ez dut zalantzarik. Hurrengo orrialdeetan topatuko dituzu 100 neurriak, zehatzak eta egingarriak. Amesten dugun Deba eraikitzeko oinarri sendoa. Gure herriarentzat freskotasuna eta kolorea berreskuratzen lagunduko digutenak.

Contento e ilusionado. Así me siento en el momento en que os estoy presentando el plan de gobierno para los próximos cuatro años. No ha sido un trabajo siempre fácil, pero sí interesante y productivo. Hemos realizado el ejercicio partiendo del presente, pero siempre pensando en el futuro, en construir unas bases sólidas para crear la Deba que soñamos. Un pueblo más democrático, más justo, más feminista, etc. que va a tener en cuenta a todas las personas, de todas las edades, de todas las condiciones, sean del centro o de los barrios.

Y lo hemos hecho en colaboración, con entidades locales, ciudadanía y la plantilla municipal. Un plan que consta de 100 medidas concretas y factibles, que van a ayudarnos a recuperar la frescura y el color para nuestro pueblo.



**GILEN GARCIA BOYRA**
DEBAKO ALKATEA

# Gobernu Plana 2019-2023

## UDAL ANTOLAKETA
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL

**Udala XXI. mendera egokitzeko zenbait alor eguneratzeko beharra agerikoa da. Horretarako, beharrezkoa da sail bakoitzaren jarraipen zuzena egitea. Horrekin batera, osotasun bat behar da jardunean eta sailen arteko koordinazioa eta instituzioekiko harremana hobetu egingo da. Hitzarmen, akordio eta kontratuak erregularizatzeko lan egingo da.**

Es evidente la necesidad de actualizar algunos ámbitos para traer el Ayuntamiento al siglo XXI. Es imprescindible hacer un seguimiento concreto a cada área. Además, se necesita una perspectiva completa en el funcionamiento y se mejorará la coordinación entre departamentos y la relación con otras instituciones. Se va a trabajar para regularizar convenios, acuerdos y contratos.

## GIZARTE POLITIKAK
POLÍTICAS SOCIALES

**Herritarren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea dugu helburu. Horretarako, zerbitzuei oro har garrantzia eman nahi izan diegu, segurtasuna, ongizatea eta autonomia hobetzeko asmoz. Kontuan hartuko dira adin tarte bakoitzean pertsonek dituzten beharrak eta horiei erantzungo zaie.**

Nuestro objetivo es mejorar la calidad de vida y el bienestar de todas las personas. Por eso hemos dado importancia a los servicios en general, con el objetivo de mejorar la seguridad, el bienestar y la autonomía. Vamos a tener en cuenta las necesidades que tienen las personas en cada etapa de su vida para poder responderlas.

## TOKIKO GARAPENA
DESARROLLO LOCAL

**Merkataritza, herri-garapena, Itziarko Auzo Udalarekin elkarlana, landa-garapena, bezalako gaiak bildu ditugu ardatz honetan. Debako herritar guztien arteko berdintasuna bermatu nahi dugu, horretarako, herri-gunea garatzeaz gain, auzoak ere erdigunean jarriz, udalerri osoaren ikuspegia sustatuko dugu.**

Es este eje hemos recogido temas como el comercio, el desarrollo municipal, colaboración con la Entidad Local Menor de Itziar o desarrollo rural. Queremos garantizar la igualdad entre todas las personas de Deba, por eso, aparte de desarrollar el núcleo urbano, vamos a poner en el centro a los barrios, implementando una perspectiva global del municipio.

## KULTURA ETA HERRI ONDAREA
CULTURA Y PATRIMONIO MUNICIPAL

**Izan garena gara, eta etorkizuneko Deba eraikiko dugu, baldin eta herri ondarea eta kultura (euskara, hezkuntza, kirola...) adierazpenak balioan jartzen baditugu. Erakunde publikoei dagokigu guzti hori babestea eta zaintzea. Horregatik neurri zehatzak hartuko ditugu Debaren berreuskalduntzerako edota kultura eta memoria berreskuratzeko, besteak beste.**

Somos lo que fuimos, y podremos construir la Deba del futuro si ponemos en valor el patrimonio municipal y la cultura (euskara, educación, deporte...). Nos corresponde a las instituciones públicas proteger todo esto. Por eso, vamos a tomar medidas concretas para la re-euskaldunización de Deba o la recuperación de la cultura y la memoria, entre otras.

## BERDINTASUNA ETA PARTEHARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN

**Gizartearen eraldaketa egin nahi dugu. Horretarako, beharrezkoa da pertsonen arteko desberdintasunekin apurtzea eta berdintasuna sustatzea. Hori guztia, herritarren partehartzea oinarri izango dituzten ekimenekin egingo dugu.**

Queremos cambiar la sociedad. Para eso, es necesario romper con las desigualdades entre las personas e implementar la igualdad. Vamos a realizar todo esto con acciones concretas basadas en la participación ciudadana.



**Iparra argi dugulako etorkizuneko Debaren sustraiak lantzen ari gara dagoeneko, egunero-egunero. Horregatik udal gobernu honek 100 neurriz osatutako gobernu plana egin du. Udal Antolaketa, Gizarte Zerbitzuak, Tokiko Garapena, Kultura, Berdintasuna eta Parte hartzea lan ardatzak oinarri hartuta. Geroa delako oraina, Debaren etorkizuna orain.**

Estamos trabajando desde ya las bases del Deba del futuro, porque tenemos claro cual es nuestro rumbo. Por este motivo, el gobierno municipal ha conformado un Plan de Gobierno de 100 medidas ancladas en las siguiente líneas de trabajo: Organización Municipal, Servicios Sociales, Desarrollo Local, Cultura, Igualdad y Participación. Porque en Deba el futuro es el presente.

## UDAL ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN MUNICIPAL — 1

### *Esan Udalari* (eskaera eta kexak) zerbitzu digitalaren hobekuntza egitea

### Realizar mejoras en el servicio digital *Esan Udalari* (solicitudes y quejas)

Eskaera-kexen kudeaketa antolatu eta hobetzeko erabakiak hartuko ditugu, herritarrei erantzuna modu egoki eta azkarrean emateko. Gaur egun martxan dagoen zerbitzua bada ere, Udaleko webgunean ikusgarriago jarri eta erantzunen kudeaketa egokitasunez beteko dugu.

Adoptaremos medidas para organizar y mejorar la gestión de las solicitudes y quejas que se reciban, para darles respuesta de manera adecuada y rápida. Aunque es un servicio que ya funciona en la actualidad, queremos situarlo en un lugar más visible de la web del Ayuntamiento, y queremos, también, optimizar la gestión de las respuestas.



## UDAL ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN MUNICIPAL — 2

### Udalaren lanpostu zerrenda birlandu eta berriz onartzea

### Revisar la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento, y aprobarla de nuevo

Lanpostu Zerrendak (LPZ) langile publikoen dotazio beteak eta hutsak, bai eta lanpostu bakoitzaren oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ere zehazten ditu. Prozedura bukatu gabe dagoenez, LPZ osoa eguneratuko dugu. Modu honetan Udaleko beharrizanak identifikatu eta lanpostu bakoitza definituko dugu.

La relación de puestos de trabajo (RPT) define las dotaciones de empleos públicos cubiertos y vacantes, así como las retribuciones básicas y complementarias que corresponden a cada puesto de trabajo. Ya que el procedimiento está sin finalizar, actualizaremos la RPT completa. De este modo, identificaremos las necesidades municipales.



## UDAL ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN MUNICIPAL — 3

### Zerga biltzailearen postua udalekotzea

### Municipalización del puesto de recaudador/a

Egungo zerga biltzailearen erretiroa dela eta, hautaketa prozesua abian jarrita udalekotuko dugu lanpostua. Lanpostu Zerrenda kontuan izanik, prozedurari dagokion bidea martxan jarri dugu, eta 2020an gauzatzea da gure asmoa.

Ante la jubilación de la persona que actualmente ocupa el puesto de recaudador, hemos puesto en marcha un proceso de selección y hemos municipalizado dicho puesto. Teniendo en cuenta la Relación de Puestos de Trabajo, hemos puesto en marcha el procedimiento y nuestro objetivo es finalizarlo el 2020.



## UDAL ANTOLAKETA / ORGANIZACIÓN MUNICIPAL — 4

### Udaltzain burua aukeratzeko hautaketa prozesua gauzatzea

### Ejecutar el procedimiento de selección de Jefe/a de Policía Municipal

2019ko urte hasieran Udaltzain buruak erretiroa hartu zuenerako ez zen ordezkoa ezartzeko hautaketa prozesurik egin. Prozesu hori martxan jarri dugu, eta helburua Udaltzaingo taldearen egoera normalizatzea izango da, egunerokotasuneko jarduna dagokion martxara itzuli dadin.

A principios de 2019, cuando el jefe de policía municipal se jubiló, no se había previsto ningún proceso de selección para sustituirlo. Hemos puesto en marcha ese proceso con el objetivo de normalizar la situación de la Policía Municipal, para que su actividad diaria pueda recuperar su ritmo normal.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**5**

### Brigada burua aukeratzeko hautaketa prozesua martxan jarri eta gauzatzea

### Poner en marcha y ejecutar el proceso de selección de Jefe/a de Brigada

Udaltzaingo buruarekin batera, 2019ko urte hasieran Brigada buruak ere erretiroa hartu zuen, baina ez zen ordezkoa ezartzeko hautaketa prozesurik egin. Brigadako taldeak duen lan-antolaketa modu egokian gauzatzeko, prozesu hau ere lehenbailehen jarri nahi dugu martxan.

Al igual que en el caso del jefe de policía municipal, a principios de 2019 también se jubiló el jefe de la brigada, y tampoco entonces se había previsto ningún proceso de selección para su sustitución. Para que la Brigada pueda realizar sus funciones de manera adecuada es necesario poner en marcha este proceso lo antes posible.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**6**

### Udaletxea eraberritzea

### Reformar el ayuntamiento

Udalaren baliabide tekniko eta materialak eguneratzeko honako ekintzak zehaztu ditugu: Telefonogune eta fitxaketa-sistema ezartzea. Udaltzaingoa eta Harrera Bulegoa berrantolatzea. Osoko bilkuren aretoa eraberritzea.

Hemos definido las siguientes acciones de cara a la actualización de los recursos técnicos y materiales del ayuntamiento: Implantar una centralita y un sistema de fichaje. Readecuar las dependencias de la Policía Municipal y la Oficina de Recepción. Rehabilitar el salón de plenos.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**7**

### Gazte lokalak arautzen dituen ordenantza adostu eta onartzea

### Acordar y aprobar la ordenanza reguladora de los locales juveniles

Gazteen lokalak geroz eta ugariagoak direnez, euren erabilera eta baldintzak arautuko ditugu, irizpideak bateratu egoera normalizatzeko asmoz. Gazte lokalen inguruko eragile bakoitzak (Udalak, erabiltzaileek, jabeek, gurasoek eta bizilagunek) bere eskubide eta betebeharrak izango ditu modu honetan.

En vista de que el número de locales juveniles va en aumento, vemos necesaria la regulación de su uso y condiciones, con el objetivo de consensuar criterios y normalizar la situación. De esta manera, todos los agentes implicados en los locales juveniles (Ayuntamiento, personas usuarias, propietarios/as, padres y madres y vecinos y vecinas) podrán ejercer sus derechos y obligaciones.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**8**

### Deba Musikal Patronatua eguneratzea

### Actualización del Patronato Deba Musical

Helburua zaharkituta geratu diren 1987ko estatutuak eta funtzionamendua eguneratzea, hitzarmenak urtez urte dagozkien unean adostu eta sinatzea, eta elkarlanerako bidea erraztu eta normalizatzea izango da.

Los estatutos y la normativa de funcionamiento son de 1987, por lo que han quedado obsoletas; es por ello que el objetivo es ahora actualizarlos, acordarlos y firmarlos anualmente y facilitar y normalizar las vías de cooperación.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**9**

### Gaztelekuarekin hitzarmena berritzea

### Renovar el convenio con el Gazteleku

Elkarlanari bide emateko, hitzarmena aztertu eta berrituko dugu. Gainera, Debako gaztelekua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika komunitatean (lurraldeko haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sortutako sistema publikoa) sartuko dugu.

Revisaremos y renovaremos el convenio, de cara a facilitar el trabajo conjunto. Además, incluiremos al Gazteleku de Deba en la comunidad Gaztematika (sistema público de promoción de Infancia, Adolescencia y Juventud de Gipuzkoa) perteneciente a la Diputación Foral de Gipuzkoa.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**10**

### Desfibriladore berriak instalatu eta ikastaroak eskaintzea

### Instalar nuevos desfibriladores y organizar cursillos

Kiroldegia eta Errotazar futbol-zelaian daudenez gain, udalerriko puntu ezberdinetan desfibriladoreak instalatu eta ikastaroak eskainiko ditugu. Deban udaletxeko arkupean, hondartza-gunean, Luzaro eskolan eta Osion; eta Itziarren (Auzo Udalarekin elkarlanean) Burugorri eraikinean, Endoixan, Elorrixan, Lasturren eta Arriolan.

Instalaremos nuevos desfibriladores en puntos del municipio, que se sumarán a los ya existentes en el polideportivo y en el campo de fútbol Errotazar. Ofreceremos cursillos. Se instalarán en Deba, en el pórtico del Ayuntamiento, en la playa, en el colegio público Luzaro y en Osio; y en Itziar, (en colaboración con la Entidad Local Menor), en el edificio Burugorri, en Endoixa, Elorrixa, Lastur y Arriola.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL **11**

### Udalerriko argiteria eguneratzea

### Actualizar el alumbrado municipal

Herriko argiteria berrituko da, LEDak ezarriz. Azterketa egina dago eta orain faseka landu beharko da LED argien instalakuntza mailakatua nola egin. Proiektu honek duen kostua kontuan izanik, urtez urte erabakiko dira fase bakoitzaren dimentsioa eta diru-kopurua.

Renovaremos el alumbrado municipal y lo sustituiremos por LED. Con el estudio ya realizado, ahora tenemos que analizar por fases la instalación progresiva del alumbrado LED. Teniendo en cuenta el coste de este proyecto, se decidirán anualmente la dimensión de cada fase y la cantidad presupuestaria destinada a ella.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL **12**

### Alde zaharreko trafikoa erregularizatzea

### Regularizar el tráfico del casco histórico

Alde zaharreko ibilgailuen zirkulazioa normalizatzeko, kudeaketa hobetuko dugu baldintzak zehaztu eta erabiltzaileak mugatuz (ordu-muga, gehienezko denbora, baimenduak…). Horrela, zamalanetarako eta bizilagunen irisgarritasuna bermatzeko araudia eratuko dugu. IAUrekin elkarlanean, Itziarko kaskoko plan estrategikoa ere aztertuko dugu.

Mejoraremos la gestión para normalizar la circulación de vehículos en el casco histórico; definiremos las condiciones y limitaremos los y las usuarias (límite de horas, tiempo máximo, personas usuarias autorizadas…). Crearemos un reglamento para garantizar la accesibilidad tanto para las operaciones de carga y descarga como para los y las vecinas de la zona. Estudiaremos el plan estratégico del casco de Itziar en colaboración con la Entidad Local Menor.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL **13**

### Aparkalekuak berrantolatzea

### Reordenar las zonas de parking

Auzoz auzoko azterketa egiten ari gara, eta lanketa horren baitan, bertakoentzat aparkalekuak zeintzuk izango diren zehaztu eta kudeaketa zein izango den finkatuko dugu. Bisitarientzat TAO aparkalekuak finkatu, ibai aldeko aparkalekuak moldatzeko azterketa egin, estazio zaharrean aparkaleku berria eraikitzeko azterketa eta Danobateko aparkalekua egokitzeko lanak ere egingo dira.

Estamos realizando un estudio en todos los barrios y definiremos qué aparcamientos serán para las personas residentes y qué tipo de gestión se aplicará a los mismos. Estableceremos aparcamientos OTA para visitantes; realizaremos un estudio para acondicionar los aparcamientos junto al río, y uno para la construcción de un nuevo aparcamiento en la antigua estación. Realizaremos las obras de remodelación del aparcamiento de Danobat.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL **14**

### Artzabalgo biribilgunean irisgarritasun azterketa egitea

### Realizar un estudio de accesibilidad en la rotonda de Artzabal

Artzabalgo biribilguneko eskailerak berrazter-tuko ditugu, Errotazar futbol zelaira eta hilerri berrira oinezkoen segurtasuna eta irristagarritasuna bermatzeko asmoz.

Vamos a revisar la escaleras de la rotonda de Artzabal, con el objetivo de garantizar la seguridad y la accesibilidad de las y los peatones hasta el campo de fútbol Errotazar y al nuevo cementerio.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL **15**

### Udal eraikinen eraginkortasun energetikorako plana egitea

### Elaborar el plan de eficiencia energética de los edificios municipales

Udal eraikinen inbentarioa egin eta bakoitzaren beharrak azterketa bidez identifikatu, Udal eraikinak maila energetikoan autonomo bihurtu, eta Deba garapen jasangarriaren bidean jartzea izango da helburua.

Realizaremos un inventario de los edificios municipales y un estudio de sus necesidades, con el objetivo de darles autonomía energética y situar al municipio en la senda del desarrollo sostenible.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL **16**

### Udal panelak gehitzea

### Aumentar los paneles municipales

Herri-gunean Udalak kudeatuko dituen panelak ezarriko ditugu, bertan jarriko diren kartelek baldintza zehatzak bete beharko dituzte, eta neurriz egun daudenak baino handiagoak izango dira. Panelen garbiketa hilean behin egingo dugu.

Colocaremos en el centro urbano paneles más grandes que los actuales. El uso de dichos paneles será gestionado por el Ayuntamiento; los carteles que se insertarán en los mismos deberán cumplir ciertos requisitos. La limpieza de los paneles se realizará mensualmente.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**17**

### Udalerriko mapa bisore eta GIS sistema ezartzea

### Implantar mapas visores y sistema SIG en el municipio

Geografia-Informazioko Sistemen (GIS) helburua, erreferentzia geografikoa duen informazioa digitalizatzea, datu-baseetan gorde eta antolatzea, analisi geografikoak egitea eta emaitzak mapen bidez irudikatzea da. Modu honetan, udalerriko elektrizitate, ur eta gas hoditeria eta telekomunikazio sareen antolaketaren informazioa bilduko du.

El objetivo de los Sistemas de Información Geográfica (SIG) es digitalizar la información de referencia geográfica, almacenarla y organizarla en bases de datos, realizar análisis geográficos y representar los resultados en mapas. De ese modo, almacenará la información sobre la disposición de las conducciones de electricidad, agua y gas y las redes de telecomunicaciones del municipio.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**18**

### Webgunea berrantolatzea

### Reorganizar la web

Egungo webgunea ez da batere intuitiboa, zaharkituta geratu da eta gaurko egoerara moldatu behar da. Herritarrei zuzendutako plataforma antolatuko dugu, eta helburu nagusia informazioa eguneratu, tramiteak erraztu eta erosoa/praktikoa den gunea sortzea izango da.

El actual sitio web del Ayuntamiento no es nada intuitivo, ha quedado obsoleto y necesita ser actualizado. Organizaremos una plataforma dirigida a la ciudadanía, con el objetivo principal de crear un sitio cómodo y práctico con información actualizada y que facilite las distintas tramitaciones.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**19**

### Terrazei buruzko ordenantza eguneratu eta betetzea

### Actualizar y cumplir la ordenanza sobre terrazas

Egungo ordenantza, zaharkitua geratzeaz gain, ez da betetzen. Horregatik, ordenantza berritu eta betearazi egingo dugu, terrazen gaia erregularizatu, berdintasun irizpideak errespetatu eta erabilera egokia sustatzeko asmoz.

La actual ordenanza ha quedado obsoleta y, además, no se cumple. Es por eso que vamos a actualizar y hacer cumplir la ordenanza; vamos a regularizar el tema de las terrazas, para respetar los criterios de igualdad y promover un uso adecuado de las mismas.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**20**

### Herri-antolaketa orokorra aztertzea

### Estudio sobre la ordenación general del municipio

Udalerria bere osotasunean hartu eta herri-antolaketa orokorra landuko dugu, Hirigintza Ordenantzetako 53. artikuluari dagokion Debako Plangintzako Hiri Antolaketako Arauak berrituz. Modu honetan, zatikako obra edo proiektuak aurrera begirako ikuspegian oinarrituta burutu ahal izango ditugu.

Vamos a estudiar la ordenación general del municipio en su totalidad, y modificaremos las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Deba correspondientes al artículo 53 de las Ordenanzas Urbanísticas. De este modo las obras o proyectos parciales se realizarán bajo una perspectiva de futuro.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**21**

### Lokalak etxebizitza bilakatzeko ordenantza lantzea

### Elaborar la ordenanza para regular la transformación de locales en vivienda

Bizitegi eraikuntzetako etxabeetan eta bestelakoetan etxebizitza erabileraren ezarpena arautuko dugu, modu ezegokian dauden lokalak erregularizatzeko asmoz.

Regularemos la implantación del uso residencial en bajos de edificios residenciales, con el objetivo de regularizar los locales en situación irregular.



**UDAL ANTOLAKETA**
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL
**22**

### Elurretako protokoloa sortzea

### Crear un protocolo de actuación ante nevadas

Elur askorik egiten ez badu ere, tarteka kostaldea ere zuritzen da, eta ezustekoak gutxitu eta saihesteko asmoz protokolo bat sortuko dugu elurra egiten duenetan egunerokotasunak ahalik eta modu erosoenean eta normalenean jarrai dezan.

Aunque en realidad no nieva con frecuencia, hay veces que también afecta a la costa, y con el objetivo de minimizar y evitar los imprevistos, crearemos un protocolo de actuación ante nevadas, para poder seguir funcionando con comodidad y normalidad.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**23**

### Zahartzaro aktiboa lantzeko jarduerak sustatu

### Promover acciones para promover el envejecimiento activo

Orain artekoak (+65 jarduera fisiko programa: North-walking, Tipi Tapa...) mantendu eta Gym Berdea proiektua martxan jartzeko aukera aztertuko da. Adineko parte-hartzaileen osasun integrala sustatuz naturaren aldeko lorezaintza hedatzen duena (lorekologia), udalerriko berdeguneen mantenua eta zaintza eginez.

Mantendremos las actividades actuales (programa de actividades físicas +65: North-walking, Tipi Tapa...) y estudiaremos la posibilidad de poner en marcha el Gym Verde. Consiste en promover la salud integral de las personas mayores participantes extendiendo una jardinería a favor de la naturaleza (Jardiecología), realizando, a su vez, un mantenimiento y cuidado de los espacios verdes.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**24**

### Jubilatu, pentsionista eta adinekoen osasuna zaintzeko prebentzioa indartzea

### Reforzar la prevención de la salud de las personas jubiladas, pensionistas y mayores

Osakidetzarekin lankidetza mantenduko dugu (gaixoen errehabilitazioa, gurpildun aulkien beharrak...), baina arreta berezia jarriko dugu beharrak aurreikustean eta prebentzioan. Horretarako, ohitura osasungarriak landu eta garatzeko programa eratuko dugu.

Mantendremos la colaboración con Osakidetza (rehabilitación de pacientes, necesidades de sillas de ruedas...), pero pondremos especial atención en la detección y prevención de necesidades. Con ese objetivo, crearemos un programa para promover y desarrollar hábitos saludables.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**25**

### Adin nagusiko eta haur/gazteen arteko topaguneak bultzatzea

### Impulsar encuentros entre personas mayores y niños/as y jóvenes

Belaunaldi arteko ezagutza eta hurbilketarako politikak indartzeko asmoz, aberasgarriak diren transmisio eta hartu-emaneko guneak sortzeko azterketa eta plangintza eratuko dira. Esaterako, ikastetxeetan elkarlaneko programak bultzatuko dira adineko pertsona eta gazteen arteko harremana sustatzeko.

Con el objetivo de afianzar las políticas de conocimiento y acercamiento intergeneracional, realizaremos un estudio y un plan para la creación de espacios de transmisión e intercambio que resultarán enriquecedores en ese sentido. Como ejemplo, apoyaremos programas de cooperación en los centros de enseñanza, para promocionar la relación entre las y los jóvenes y las personas mayores.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**26**

### Arbil elkartea dinamizatu eta hitzarmena adostea

### Dinamizar la asociación Arbil y consensuar un convenio

Arbil elkartearekin elkarlanean, autoestimuaren eta pertsonaren garapenaren aldeko mota guztietako jarduerak sustatuko ditugu prestakuntza, kultura eta aisia-eremuetan. Jendartean eragiteko kolektiboak eta boluntarioen elkarteak sustatu, eta adineko pertsonek haietan parte hartzea helburu izanik.

En colaboración con la Asociación Arbil, promoveremos todo tipo de actividades en los ámbitos de la formación, la cultura y el ocio, para trabajar la autoestima y el desarrollo personal. Impulsaremos los colectivos y asociaciones de voluntariado que influyen en la sociedad, con el objetivo de que las personas mayores participen en las mismas.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**27**

### Menpekotasun egoeran dauden herritarrentzat zerbitzuak indartzea

### Reforzar las ayudas/servicios para personas dependientes

Etxez etxeko laguntza, eta ospitalizazio edo bakardade egoera pairatzen dutenen laguntza zerbitzuak areagotu eta hobetuko ditugu. Tele-zaintza zerbitzua zenbat pertsonek behar duten berraztertuko da, eta txirotasun energetikoaren diagnosia egingo da beharrezkoak diren laguntzak emateko.

Aumentaremos las ayudas a domicilio y los servicios asistenciales para personas hospitalizadas o que viven en situación de soledad. Del mismo modo, realizaremos un nuevo estudio sobre el número de personas que necesitan tele-asistencia, y elaboraremos un diagnóstico sobre la pobreza energética para poder ofrecer las ayudas necesarias.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**28**

### Adinekoentzat gerontologiako zentro publikoaren aukera aztertzea

### Estudiar la posibilidad de crear un centro público de gerontología

Besteren beharra duten adinekoei (eta haien familiei) zaintza osoa (menpekotasun mota ezberdinei egokitutako zaintza) eskaintzen duen zentro baten beharra ikusten dugu. Behar horiei erantzuteko gerontologiako zentro integral (zaharren egoitza, eguneko zentroa, zerbitzuak...) baten azterketa egingo dugu.

Vemos la necesidad de un centro que ofrezca un cuidado integral (cuidados adaptados a todo tipo de dependencias) a las personas mayores dependientes y a sus familiares. Elaboraremos un estudio sobre la posibilidad de crear un centro gerontológico que responda a esas necesidades (residencia de ancianos, centro de día, servicios...).



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**29**

### Adinekoen etxebizitzetako segurtasuna eta autonomia handitzea

### Aumentar la seguridad de las viviendas y la autonomía de las personas mayores

Ke-detektagailuak, bainu gelen egokitzapena edo igogailuak behar dituzten etxeen egoera berraztertuko dugu. Helburua adineko pertsonen bizimodu autonomoa eta inguru hurbilarekiko harremana erraztea eta gizartean integratuta jarraitzen laguntzea izango da. Horretarako neurri zehatzak hartuko ditugu.

Analizaremos de nuevo la situación de las viviendas que necesiten detectores de humo, remodelación de baños o ascensores. El objetivo es conseguir que las personas mayores puedan contar con más autonomía, facilitarles la relación con el entorno y ayudarles a seguir estando integradas en la sociedad. Adoptaremos medidas concretas en ese sentido.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**30**

### Larrialdietarako etxebizitza gehiago eskuratzea/lortzea

### Adquirir y conseguir más viviendas de acogida para situaciones de emergencia

Hainbat egoera larriengatik etxebizitzarik gabe edo beren ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitzeko arazoak dituzten pertsonei edo familiei, bizitokia, harrera, gainbegiraketa eta jarraipena eskaintzeko helburua dute etxebizitza hauek. Geroz eta behar gehiago antzeman dugu, eta beharrezkoa iruditzen zaigu zerbitzu hau ere hobetzea.

Estas viviendas tienen como objetivo ofrecer alojamiento, acogida, supervisión o seguimiento a personas o familias que por diversas circunstancias graves han perdido su vivienda o tienen dificultades para poder seguir viviendo en su domicilio habitual. Hemos detectado un aumento de circunstancias de este tipo, y creemos que es necesario mejorar también este servicio.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**31**

### Ludoteka zerbitzua martxan jartzea

### Poner en marcha el servicio de ludoteca

3-8 urte bitarteko haurrei jolasteko eta harremanetarako gune egoki eta hezgarria eskaintzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Hutsune nabarmena izanik, lehentasuna emango diogu neurri honi. Gainera, ludotekak haur eskola eta Gaztelekuaren bitarteko hutsunea ere beteko luke.

Creemos que es necesario ofrecer a los niños y niñas de entre 3 y 8 años un espacio adecuado y educativo para divertirse y relacionarse. Es una carencia evidente, por lo que daremos prioridad a esta medida. Además, la ludoteca llenará el vacío existente entre la escuela de educación infantil y el Gazteleku.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**32**

### Deba inklusiboagoa egitea

### Hacer de Deba un municipio más inclusivo

Larrialdi edo bazterketa arriskuan dauden herritarrak integratzeko bideak ziurtatuko ditugu. Laguntzaren beharra duten herritarren errolda zabaldu eta diru-laguntzak eskaini (etxebizitzak, alokairu sozialak, laguntza psikoterapeutikoa...). Aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera berdintasuna eta oinarrizko eskubideak bermatzeko laguntzak ere eskainiko dira.

Garantizaremos los medios para integrar a las personas que estén sufriendo situaciones de emergencia o que estén en riesgo de exclusión. Elaboraremos un censo de las personas necesitadas y les ofreceremos ayudas económicas (vivienda, alquiler social, asistencia psicoterapéutica...). Ofreceremos ayudas para garantizar la igualdad de oportunidades y el ejercicio de los derechos básicos para las personas con diversidad funcional.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**33**

### “Ongi etorri Deba-Itziarrera” harrera protokoloa diseinatzea

### Diseñar el protocolo de acogida “Ongi etorri Deba-Itziarrera”

Harrera instituzionalizatu/erakundetu nahi dugu. Helburua, herritar berrien egoera ezagutu eta, aldi berean, herriak eskaintzen dizkien zerbitzuak (osasuna, euskara, tramitazioak...) jakinaraztea izango da. Elkar ezagutzeko “Deba-Itziar anitza” ospakizun eguna antolatuko dugu ekimen parte hartzaile baten bitartez.

Queremos institucionalizar la acogida. El objetivo consiste en conocer la situación de las personas recién llegadas e informarles sobre los servicios que ofrece el municipio en diferentes aspectos: salud, euskera, tramitaciones, etc. Con el objetivo de propiciar el conocimiento mutuo, organizaremos la jornada “Deba-Itziar plural” mediante una iniciativa participativa.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**34**

### SOS Arrazakeriarekin lankidetza indartzea

### Reforzar la colaboración con SOS Arrazakeria

Etorkinei babesa emanez, sentsibilizazio ekintzak eta garapen bidean dauden herrialdeen garapenaren sustapena lantzen dituen elkartearekin batera, kultur aniztasunaren inguruan dauden jarrerak, aurre iritziak eta beldurrak lantzeko bideari ekingo diogu herritarren arteko elkarbizitza osasuntsua izan dadin.

En colaboración con la asociación que promueve acciones de sensibilización y el desarrollo de los países menos favorecidos, abriremos vías para trabajar sobre los prejuicios y los miedos, para conseguir una convivencia sana entre todas las personas que residen en el municipio.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES **35**

### Herriko kooperazio taldeei diru laguntzak ematen jarraitzea

### Seguir ofreciendo subvenciones a las asociaciones de cooperación locales

Orain arteko lankidetza bermatuko da, aurrekontuen %0,7a garapen eta larrialdietako proiektuetara bideratuz. Bestalde, Euskal Fondoan parte hartzen jarraituko dugu, bertan dauden garapen proiektuak lagunduz. Eta lankidetza indartzeko, bekak eskainiko dira.

Garantizaremos la colaboración existente en la actualidad, y destinaremos el 0,7% del presupuesto a proyectos de desarrollo y situaciones de emergencia. Por otra parte, seguiremos participando en la Asociación de Entidades Locales Vascas Euskal Fondoa y colaborando con los proyectos de desarrollo que en la misma se propongan. Y ofreceremos becas como medio para reforzar la cooperación.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES **36**

### Herritarrei Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa helaraztea

### Informar a la ciudadanía sobre los Servicios Sociales existentes

Informazioa ezinbestekoa da (gizarte zerbitzuak zeintzuk diren, zein prozedura eta baldintza bete behar diren…), eta asmoa herritarrei informazio hori helaraztea izango da. Modu honetan, bizitzari duintasunez aurre egiteko aukera bermatuko dugu, oinarrizko eskubidea den heinean.

Creemos que la información es imprescindible (qué tipo de servicio social existe, cuál es el procedimiento, qué requisitos se necesitan, etc.), y nuestro objetivo es transmitir esa información. De ese modo, garantizaremos la posibilidad de hacer frente a la vida de manera digna, dado que es un derecho básico.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES **37**

### Zergetan eta diru-laguntzetan progresibitatea ezartzea

### Establecer la progresividad en los impuestos y en las ayudas económicas

Pertsona edo familia bakoitzaren egoera aztertuko dugu, bai zergak ezartzeko orduan eta baita diru-laguntzak emateko orduan ere. Zergen kasuan, progresibitatea oinarri izanik, errenta eta aberastasuna hazi ahala ordaindu beharreko ehunekoa handituko dugu, gehien duenak eginiko ekarpena handiago izan dadin ahalbidetuz.

Estudiaremos la situación de cada persona y de cada familia, tanto a la hora de establecer los impuestos como las ayudas económicas correspondientes. Basándonos en la progresividad, en lo que a impuestos se refiere, aumentaremos el porcentaje a pagar en la medida en que aumenten la renta y la riqueza, propiciando que quien más tenga realice una aportación mayor.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES **38**

### Pisu turistikoen ordenantza eratzea

### Elaborar una ordenanza para la regulación de las viviendas turísticas

Azken urteotan nabaria den erabilera desegokia erregularizatzeko asmoz, Nekaturrekin harreman zuzena mantenduz eta araudi orokorrak oinarri izanik, etxe turistikoen kudeaketaren azterketa eta araudiaren lanketa gauzatuko ditugu.

En vista de que cada vez es mayor el uso inadecuado de las mismas, y con el objetivo de regular dicho uso, realizaremos un estudio sobre la gestión de las viviendas turísticas y elaboraremos un reglamento, en relación directa con Nekatur, y tomando como base el reglamento general.




**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES **39**

### Garraioa eta dagozkion zerbitzuak hobetu

### Mejorar el transporte y los servicios

GFArekin elkarlanean, garraio publikoaren inguruan hausnarketa egin eta zerbitzua hobetzea. TAOko makinen zerbitzua berritzen joatea. Autobus Geltokiaren berrantolaketa. Gudarien plazaren birmoldaketaren azterketa. Tren Geltokia eta pasabidearen proiektua ETSrekin adostu. Deba-Donostia lotura hobetzea. Herri-bus zerbitzua ezartzeko azterketa (auzo guztietatik pasako litzatekeena).

En colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, reflexionaremos sobre el transporte público para proponer mejoras en el servicio. Renovar el servicio de máquinas de la OTA. Reorganizar la estación de autobuses. Estudiar la remodelación de Gudarien Plaza, el proyecto de la estación de tren y el paso ferroviario con ETS. Mejorar la conexión Deba-Donostia. Estudiar la posible implantación del servicio herri-bus (con acceso a todos los barrios).



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES **40**

### Gaztelekuan mantentze lanak gauzatzea

### Ejecutar las obras de mantenimiento del Gazteleku

Premiazkoak diren obrak bideratuko ditugu, hala nola, elektrizitate sistema berritu, hezetasun arazoak konpondu, leihoak berritu eta sukaldea sortzeko lanak egingo ditugu.

Acometeremos las obras urgentes, como renovar el sistema eléctrico, dar solución a los problemas de humedad, reformar las ventanas y realizar las obras para la creación de una cocina.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**41**

### Etxebizitza alokairua bultzatzeko diru-laguntzak emateko aukera aztertzea

### Estudiar la posibilidad de ayudas económicas para promover el alquiler

Etxebizitzen alokairua sustatzeko asmoz, diru-laguntzak emateko ditugun aukeren azterketa egingo da. Diru-laguntza hauen bitartez etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat lortzea erraztu nahi diogu merkatu libreko etxebizitza bat izateko aukerarik ez duen herritar orori.

Realizaremos un estudio sobre las posibilidades que existen de ofrecer ayudas económicas para la promoción del alquiler de viviendas. Mediante dichas ayudas queremos facilitar el acceso a una vivienda digna, adecuada y accesible a todo vecino/a que no tenga posibilidades para adquirir una vivienda en el mercado libre.



**GIZARTE POLITIKAK**
POLÍTICAS SOCIALES
**42**

### Ikasteko gunea egokitzeko azterketa egitea

### Analizar la posibilidad de adaptación de un espacio para el estudio

Ikasleentzat ordutegi zabala duen ikasketa gunea ahalbidetzeko azterketa landuko dugu. Egitasmo honen helburua, etxean ikasteko toki egokirik ez duten gazteei eta etxetik kanpo hobeto kontzentratzen diren ikasleei zerbitzua eskaintzea izango da.

Estudiaremos la posibilidad de facilitar al alumnado un espacio para el estudio con un horario amplio. Esta iniciativa tiene como objetivo ofrecer un servicio al alumnado que no cuenta con un espacio de estudio apropiado en su casa, o que se concentre mejor fuera de ella.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**43**

### Lurralde ikuspegia txertatzea

### Integrar la perspectiva territorial

Udalerriko auzo guztiak izango ditugu kontuan (Osio, Agerretxe, Itsasbegi, Debako erdigunea, Egia, Itxaspe, Elorrixa, Endoia, Lastur, Itziarko kaskoa, Arriola, Arbizkoa, Mardari), ez herrigunea eta bere ingurua soilik. Modu honetan, herritar guztien ongizatea bermatuko dugu, bereizketa edo ezberdintasunik egin gabe.

Se tomarán en cuenta todos los barrios del municipio (Osio, Agerretxe, Itsasbegi, núcleo urbano de Deba, Egia, Itxaspe, Elorrixa, Endoia, Lastur, casco de Itziar, Arriola, Arbizkoa, Mardari), y no sólo el núcleo urbano y sus alrededores. De ese modo, garantizaremos el bienestar de toda la ciudadanía sin ningún tipo de discriminación ni diferencia.




**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**44**

### Herri sukaldearen proiektuaren azterketa egitea

### Estudiar el proyecto de cocina popular

Udal sukaldearen bidez, zerbitzua bera hobetu eta tokiko eta garaiko produktuak sustatu daitezke. Gainera, sukalde zerbitzuetarako lanpostuak sortzeaz gain, proiektu honek herriko merkatari eta ekoizleei lana emango lieke. Egingarria izan daitekeen jakiteko, azterketa bat egingo dugu.

Mediante el uso de la cocina municipal se puede mejorar el servicio y aprovecharlo para promocionar productos locales y de temporada. Además de crear puestos de trabajo relacionados con los servicios de cocina, este proyecto también ayudaría a los comercios y a las y los productores locales. Para confirmar que el proyecto es factible tenemos que elaborar un diagnóstico.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**45**

### Itziarko auzo-udalarekin elkarlana gauzatzea

### Realizar la colaboración con la Entidad Local Menor de Itziar

Deba eta Itziar arteko harremana normalizatuz, elkarlana izango da Itziarko Auzo Udalaren eta udalaren arteko lan-tresna nagusia. Hitzarmenak, proiektuen koordinazioa eta borondatea izango dira oinarri nagusiak.

Tomando la normalización de la relación entre Deba e Itziar como objetivo, la colaboración mutua será la herramienta de trabajo principal entre las dos entidades. Nos basaremos, principalmente, en convenios, coordinación de proyectos y voluntad.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**46**

### Itziar-Deba enpresa parkearekin elkarlana sustatzea

### Fomentar la colaboración con el parque empresarial Itziar-Deba

Enpresa parkearen garapenean Udalak egin beharreko kudeaketan arituko gara, eta Itziarko sarreraren hobekuntza lanak (2 fasetan) eta urbanizazio lanak gauzatuko ditugu, Itziarko Auzo Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Horretarako lan-mahaia indartuko dugu.

Trabajemos la parte correspondiente a la gestión a realizar por el Ayuntamiento para el desarrollo del parque, y ejecutaremos las obras de mejora (en 2 fases) y las obras de urbanización, en colaboración con la Entidad Local Menor de Itziar y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Reforzaremos la mesa de trabajo.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**47**

### Landa-eremuko baserrien egoeraren azterketa
### Estudiar la situación de los caseríos del entorno rural

Baserriak pixkanaka husten ari dira, eta garrantzitsua iruditzen zaigu landa eremuan sakabanatuago dauden etxebizitzetan bizi diren herritarren inguruko azterketa egitea (zenbat jende bizi den, zein jarduera duen...), edozein zerbitzu, laguntza eskaintzeko.

Los caseríos están siendo abandonados paulatinamente, y nos parece muy importante elaborar un estudio sobre las personas que viven en las viviendas más alejadas en el entorno rural (número de personas, tipo de actividad a la que se dedican...), para poder ofrecerles los servicios y asistencia que necesiten.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**48**

### Baserri bideen konponketan sakontzea
### Profundizar en la reparación de vías rurales

50km-tik gora baserri bide dugula kontuan izanik, Itziarko Auzo Udalarekin elkarlanean, urtero aurrekontuetan diru-partida bat zehaztuko dugu baserri bideak konpontzeko, behar handiena dutenetatik hasi eta pixkanaka guztien mantenua egiteko.

Teniendo en cuenta que tenemos más de 50 km de caminos rurales, estableceremos cada año una partida presupuestaria en colaboración con la Entidad Local Menor de Itziar para la reparación de los mismos. Comenzaremos con los que mayores necesidades presentan y, progresivamente, realizaremos las labores de mantenimiento de todos ellos.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**49**

### Landa eremuko herri bideak babestuko dituen ordenantza lantzea
### Elaborar una ordenanza para la protección de los caminos públicos rurales

Herri bideak egur ustiapen, betelan, eta abarren aurrean babesteko araudia lantzen ari gara, Itziarko Auzo Udalarekin elkarlanean. Baso lanetarako makina handiak eta pisutsuak erabiltzen dira eta hormigoizko bideak ez daude edozer jasateko eginak.

Estamos elaborando, en colaboración con la Entidad Local Menor de Itziar, un reglamento para la protección de los caminos públicos ante el aprovechamiento maderero, trabajos de relleno, etc. Se utilizan grandes y pesadas máquinas para realizar los trabajos forestales, y los caminos de hormigón no están construidos para soportar esa actividad.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**50**

### Udalak landa eremuan dituen lurren erabilera aztertzea
### Estudiar la posibilidad de utilizar los terrenos del Ayuntamiento en la zona rural

Lurzoru publikoak aprobetxagarriak izan daitezke, baina erabilera aurrez aztertzea komeni da, modu horretan erabilera egokiena emateko, adibidez herri baratzeak sustatuz.

Los terrenos públicos pueden ser aprovechables, pero es conveniente analizar de antemano sus posibles usos; de ese modo, podremos decidir cuál es el uso más adecuado para ellos, por ejemplo, para la promoción de huertas sociales.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**51**

### Kirol instalazioak hobetu eta berritzea
### Mejorar y acondicionar las instalaciones deportivas

Dauden kirol instalakuntza eta zerbitzuen azterketa egingo da: hondartzako zerbitzuak urte osoan erabiltzeko aukera landu, Errotazar futbol zelaiko belarra berritu, Euskal Jolas frontoia txukundu, kiroldegiko markagailua aldatu, kanasta berriak instalatu eta kantxaren erabilera berrantolatu, arraunketarako gunearen azterketa egin, Elorrixako frontoia eraikitzeko prozedura martxan jarri...

Estudiaremos las instalaciones y servicios deportivos existentes: Posibilidad de utilizar los servicios de la playa durante todo el año; renovar la hierba del campo de fútbol Errotazar; acondicionar el frontón Euskal Jolas; sustituir el marcador del polideportivo; instalar nuevas canastas y reorganizar el uso de la cancha; estudiar la zona de remo; activar la construcción del frontón de Elorrixa, etc.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**52**

### Hezkuntzari lotutako eraikin publikoetan beharrezkoak diren moldaketak egitea
### Ejecutar las obras de acondicionamiento en los edificios públicos educativos

Luzaro eskolako jangelako sabaia jaitsi, oihartzunagatik sortzen diren zaratak ekiditeko. Luzaro eskolako goiko patioari estaldura jarri eta bestelako jolastokien azterketa bideratu. Haur-eskolako beroa ekiditeko leihoak aldatu eta jolastokia berritu.

Bajar el techo del comedor del Colegio Público Luzaro, para evitar el ruido que produce el eco. Construir una cubierta en el patio superior del Colegio Público Luzaro y acometer el estudio del resto de patios de recreo. Sustituir las ventanas de la Haur-eskola para evitar el calor y remodelar el patio de recreo.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**53**

### Landa eta natur bideak balioan jartzea

### Poner en valor los caminos rurales y las rutas verdes

Udalerriko ibilbide ezberdinak eta natur-guneak (Artzabalgo padura) osatu edo zehaztuko ditugu, seinaleztatuz, garbi mantenduz eta azalpen-taulak jarriz. Herrian dugun ondarea zaindu eta balioan jartzea beharrezkoa iruditzen zaigu, herritar eta bisitariei gure inguruak ezagutzeko aukera zabala eskainiz.

Completaremos o definiremos los diferentes recorridos del municipio y los espacios naturales (humedal de Artzabal), colocaremos señales y paneles informativos y cuidaremos su buen estado. Creemos necesario cuidar y poner en valor nuestro patrimonio, y para ello debemos ofrecer a la ciudadanía y a las personas visitantes la posibilidad de conocer nuestro entorno.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**54**

### Lotarako dagoen leku gabeziari irtenbidea nola eman aztertzea

### Estudiar posibles soluciones a la falta de lugares para pernoctar

Donejakue bideko erromesei garai jendetsuenetan gutxienez lo egiteko lekuren bat nola atondu eta erregularizatu aztertuko dugu. Gainera, hotel bat zabaltzeko aukerei gure babesa eskainiko diogu. Beste alojamendu mota bat nahi duten bisitarientzat herrian hotela eraikitzeko aukerak aztertu eta bultzatuko ditugu.

Estudiaremos las posibilidades de habilitar y ofrecer a las personas que peregrinan en el Camino de Santiago un lugar donde dormir; por lo menos en las épocas de mayor concurrencia. Además, apoyaremos las iniciativas de apertura de un hotel. Estudiaremos y apoyaremos las posibilidades de abrir un hotel en el municipio para los/las visitantes que busquen otro tipo de alojamiento.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**55**

### Bertako merkataritza sustatzea

### Promocionar el comercio local

Gaur egun komertzio txikiaren biziraupena ez da erreza, eta Debak herri bizia izaten jarraitzeko azterketa bat egingo dugu dauden kontsumo ohiturak, eta ditugun baliabide eta beharrak ezagutzeko. Modu horretan, merkatariekin elkarlanean eman beharreko pausuak zehaztuko ditugu.

La supervivencia de los pequeños comercios es una tarea muy difícil hoy en día; y vamos a realizar un estudio con el objetivo de que Deba siga siendo un pueblo vivo: analizaremos los hábitos de consumo y, al mismo tiempo, tendremos conocimiento de los recursos de que disponemos y las necesidades existentes. De ese modo, definiremos los pasos a dar en colaboración con las y los comerciantes.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**56**

### Merkatuaren eraikuntza birmoldatzea

### Remodelar el edificio del mercado

Egungo egoera irregularrari irtenbidea eman eta sektorearen irudi txukunago eta bateratuagoa emateko, paseo estalia birmoldatuko dugu, azoka bertan kokatzeko.

Para dar una solución a la situación irregular actual y ofrecer una imagen más adecuada y unificada del sector, remodelaremos el paseo cubierto para situar el mercado en el mismo.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**57**

### ETSrekin (Eusko Trenbide Sarea) elkarlana sustatzea

### Impulsar la colaboración con Eusko Trenbide Sarea

Alderdi politikoekin eta beste erakundeekin (Eusko Jaurlaritza, esaterako) elkarlanean egungo trenbideko pasabidea eta estazioaren alternatiben azterketa egin ondoren, hautaketa prozesu bat jarriko dugu abian.

Una vez realizado el estudio de las alternativas sobre el paso ferroviario y la estación en colaboración con los partidos políticos y con otras instituciones como el Gobierno Vasco, pondremos en marcha un proceso de selección.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**58**

### Co-working gune baten beharra aztertzea

### Estudiar la necesidad de un espacio co-working

Kultur Elkartearekin eta gainontzeko kultur elkarteekin elkarlanean, lan-sektore jakin batean espezializatutako edo lan-sektore ezberdinak bilduko dituen gunea sortzeko azterketa egitea izango da helburua.

El objetivo consiste en realizar, en colaboración con Kultur Elkartea y el resto de asociaciones, un estudio sobre la posibilidad de crear un espacio especializado en un sector laboral determinado o que reúna a varios sectores laborales diferentes.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**59**

### Hondartzako sarrera egokitzea
### Acondicionar el acceso a la playa

GFArekin elkarlanean, hondartzako sarrera hobetuko duen aurreproiektua eta proiektua landuko ditugu, autoen joan-etorria arintzeko eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko asmoz.

En colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, trabajaremos el anteproyecto y el proyecto de mejora del acceso a la playa con el objetivo de disminuir el tráfico rodado y garantizar la seguridad de los peatones.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**60**

### Hondartza kalearen birmoldatzea
### Acondicionar la calle Hondartza kalea

Hondartza kalerako proiektu integrala landuko dugu, semaforoak berrituz eta modu irregularrean dauden aparkalekuak txukun jarri ote daitezkeen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziatuz.

Elaboraremos un proyecto integral para la calle Hondartza kalea; sustituiremos los semáforos y negociaremos con la Diputación Foral de Gipuzkoa la posibilidad de adecentar los aparcamientos que están en situación irregular.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**61**

### Deba-Mutriku zubia konpontzea
### Reparar el puente Deba-Mutriku

Konponketaren 2. faseari 2020ko urte hasieran ekingo dio Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta gure eginbeharra lan horren jarraipen zehatza egitea eta prozesu horretan biztanleentzat ager daitezkeen eragozpenak arintzen saiatzea izango da.

La Diputación Foral de Gipuzkoa iniciará la segunda fase de las obras a comienzos de 2020, y nuestra labor consiste en hacer un seguimiento exhaustivo a dichas obras e intentar paliar las molestias que las mismas pudieran ocasionar a la población.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**62**

### Irisgarritasun Planaren azterketa eta eguneratzea
### Estudiar y actualizar el Plan de Accesibilidad

Herriko hainbat puntu oinezkoen segurtasun eta erosotasunerako birmoldatuko ditugu: hondartzarako sarrera, ibaia (estaziotik paseora oinezkoen bidea lotu), Agirretxeko espaloiak, Latzurregiko zebra-bideak, eta San Josepe berrantolatu kotxe-oinezkoen elkarbizitza gune izateko.

Remodelaremos algunos puntos del municipio para garantizar la seguridad y la comodidad de los peatones: acceso a la playa, el río (conexión peatonal desde la estación al paseo), aceras de Agirretxe, pasos de cebra de Latzurregi y reordenación de San Josepe para convertirlo en un espacio que posibilite la convivencia entre peatones y vehículos.



**TOKIKO GARAPENA**
DESARROLLO LOCAL
**63**

### Ifar kaletik Mogelerako pasabidea urbanizatzea
### Urbanizar el paso entre las calles Ifar y Mogel

Lurzorua egoera egokian ez dagoenez eta argi falta ere sumatzen denez, zonalde hau txukunduko dugu oinezkoentzat ibilbide erosoagoa bihurtu eta segurtasuna bermatu dadin.

El pavimento no está en condiciones y también se ha detectado falta de luz; por lo tanto, vamos a acondicionar esta zona para garantizar la comodidad y la seguridad de los y las viandantes.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**64**

### Arkeologia eta aurrehistoria Deban
### Arqueología y prehistoria en Deba

Geoparkearekin eta GFArekin elkarlanean, karsta eta gizakia gaiak oinarri hartuz, "Aurrehistoriaren bailara" balioan jartzea izango da helburua. Horretarako hainbat ekintza definituko ditugu, adibidez: Deba-Sasiola ibilbidea balioan jartzea, udalerria ibilbide hori osatuko duten gune ezberdinekin osatzea. Ekain fundazioko partaide bihurtuko gara, aurrez helburuak landuz.

En colaboración con el Geoparkea y con la Diputación Foral de Gipuzkoa y basándonos en la temática del karst y el ser humano, nos planteamos el objetivo de poner en valor "El valle de la Prehistoria". Para ello definiremos varias iniciativas, por ejemplo: Poner en valor el recorrido Deba-Sasiola, completar el municipio con los diferentes espacios que conforman ese recorrido. Participaremos en la Fundación Ekain.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**65**

### UEMArekin elkarlana sustatzea

### Promocionar la colaboración con UEMA

UEMAren laguntzaz herri mailan euskararen erabilera hobetuko duten ekintzak identifikatu eta gauzatuko ditugu. Merkataritza eta ostalaritza guneetan euskara lehenetsi dadin, euskarri ezberdinak (txartelak, kartelak, errotuluak...) euskaraz egiteko laguntza eskainiko dugu.

En colaboración con UEMA identificaremos y ejecutaremos acciones para mejorar el uso del euskera en el municipio. Con el objetivo de priorizar el uso del euskera en los comercios y establecimientos de hostelería, ofreceremos asistencia para crear en euskera los distintos soportes (tarjetas, carteles, rótulos, etc.).




**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**66**

### Udalaren hizkuntza irizpideak zehazten dituen Erabilera Plana betetzea

### Ejecutar el Plan de Uso del euskera que define los criterios lingüísticos

Deba herri euskalduna denez, eta UEMAko kide garela kontuan izanik eta "Erabilera plana 2018-2022" oinarri hartuta, ezagutzatik erabilera sustatu eta bermatzeko urratsak emango ditugu.

Dado que Deba es un municipio euskaldún y es miembro de UEMA, daremos los pasos necesarios para promover y garantizar el uso del euskera, tomando como base el "Plan de Uso del euskera 2018-2022".



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**67**

### Aisialdiko euskarazko eskaintza indartzea

### Aumentar la oferta de actividades de ocio en euskera

Diru-laguntzak ematerako orduan, lehentasuna emango diegu euskara hutsean antolatzen diren ekintza edo ikastaroei. Euskara hizkuntza akademikoa baino askoz ere gehiago dela sentitzeko, herritarrok hizkuntzen pedagogia behar dugu. Aisialdia, kirola eta kultura arlo egokiak iruditzen zaizkigu euskararen erabileraren lanketa gauzatzeko.

A la hora de conceder subvenciones daremos prioridad a las actividades o cursos que tengan como única lengua vehicular el euskera. Para sentir que el euskera es mucho más que una lengua académica necesitamos de una pedagogía lingüística. Las actividades de ocio, el deporte o la cultura nos parecen sectores adecuados para desarrollar la labor de promoción del uso del euskera.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**68**

### Turismoan euskara balioan jartzea eta bisitariei mezua helaraztea

### Poner en valor el euskera en el turismo y hacer llegar ese mensaje a visitantes

Euskara berezko hizkuntza dela eta erdal hizkuntzen aurrean lehentasuna duela igarri dadin, panfleto eta euskarri ezberdinetan euskarak izango du presentzia gehien, gainontzeko hizkuntzak tamaina txikiagoan jarriz. Horrez gain, udalerriko kartel eta seinaleetan euskara lehenetsiko da.

Para que conste que el euskera es nuestra lengua propia y que le damos prioridad ante las demás lenguas, el euskera tendrá una presencia más notable en los distintos soportes y panfletos, para lo cual usaremos una tipografía mayor que la del resto de lenguas. Además, se priorizará el euskera en los carteles y señales del municipio.




**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**69**

### EUSKARALDIA 2020 (azaroak 20 - abenduak 4)

### EUSKARALDIA 2020 (20 de noviembre – 4 de diciembre)

Herritarrak sentsibilizatu eta ahalduntzeaz gain, euskalgintza aktibatzea. Ahobizi eta Belarriprest gehiago sortuz.

Aparte de sensibilizar y empoderar la población, activar el movimiento social del euskera. Crear más Ahobizi y Belarriprest.




**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**70**

### 22. KORRIKAn (2021) parte hartzea

### Participar en la iniciativa KORRIKA 22 (2021)

10 egunez 22. aldiz herriz herri ibiliko den KORRIKA ekimena babestu, sustatu eta indartzeko neurriak zehaztuko ditugu. Ekimen honek duen garrantziagatik, herritarren parte-hartzea sustatzeko neurriak zehaztuko ditugu.

Estableceremos medidas para apoyar, promover y reforzar la KORRIKA, iniciativa que en su vigesimosegunda edición, recorrerá Euskal Herria durante 10 días. Dada la importancia de esta iniciativa, estableceremos medidas para promocionar la participación ciudadana.



## KULTURA ETA HERRI ONDAREA / CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO — 71

**Zuhatza euskara elkartearekin elkarlana eta hitzarmena**

**Colaborar con la asociación Zuhatza Euskara Elkartea y firmar un convenio**

Legealdi hasieratik harreman zuzena izan dugu Zuhatza elkartearekin. Bertako euskarazko komunikabideak babestea ezinbestekoa iruditzen zaigu, eta elkarlanak guztion onura ekar dezan hitzarmena adostuko dugu.

Desde el comienzo de la legislatura mantenemos un contacto directo con la Asociación Zuhatza. Nos parece de suma importancia el apoyo a los medios locales en euskera, y firmaremos un acuerdo para que esa colaboración redunde en beneficio de todas las partes.



## KULTURA ETA HERRI ONDAREA / CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO — 72

**Euskara ikasteko laguntzak berraztertu**

**Revisar las ayudas para el aprendizaje del euskera**

Gaur egun ematen diren diru laguntzen oinarriak berraztertu eta herritarrei aukerak eta laguntza eskainiko dizkiegu euskara ikas dezaten.

Revisaremos las bases de las subvenciones actuales y ofreceremos oportunidades y ayudas a la ciudadanía para el aprendizaje del euskera.



## KULTURA ETA HERRI ONDAREA / CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO — 73

**Euskaratze prozesuan, hiztegia garatzea**

**Desarrollar un diccionario como medio de apoyo en el proceso de euskaldunización**

Herrian erdara erabiltzen duten herritarrei euskararen unibertsoan murgiltzeko aukera emango dien hiztegi erabilgarri bat garatuko dugu, Deban hitz egiten diren hizkuntzak kontuan hartuz, egunerokoan euskaraz erabiltzen ditugun hitzez osatuta egongo da.

Desarrollaremos un práctico diccionario que ayudará a sumergirse en el universo del euskera a las personas que utilizan otro idioma en el municipio. Teniendo en cuenta cuáles son los idiomas que se hablan en el municipio, el diccionario estará compuesto por palabras en euskera de uso cotidiano.



## KULTURA ETA HERRI ONDAREA / CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO — 74

**Kultur-gune bat martxan jartzeko Kultur Mahaiarekin elkarlana sustatzea**

**Colaboración con la Mesa de Cultura para poner en marcha un espacio cultural**

Herrian ditugun kultur eragile guztien koordinazio gunea den Kultur Mahaiarekin elkarlanean, bideragarriak diren azpiegiturak aztertu eta proiektuari bultzada emango diogu.

En colaboración con la Mesa Cultural, como coordinadora de todos los agentes culturales del municipio, estudiaremos las infraestructuras viables y daremos impulso al proyecto.



## KULTURA ETA HERRI ONDAREA / CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO — 75

**Kultur Elkartearekin elkarlana sustatzea**

**Promocionar la colaboración con la Kultur Elkartea**

Kultur elkartearekin aurrera begira egin beharreakoak adostu eta eraikinaren bideragarritasun plana diseinatuko dugu, elkarteak duen ibilbide historikoaren balioa nabarmenduz.

Acordaremos con Kultur Elkartea las labores a realizar de cara al futuro y diseñaremos un plan de viabilidad del edificio, haciendo hincapié en el valor de la trayectoria histórica de la asociación.



## KULTURA ETA HERRI ONDAREA / CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO — 76

**Kultur agenda aztertu eta elikatzea**

**Estudiar y completar la agenda cultural**

Kultur egitarau oparoa eskaini ahal izateko, herritar eta eragileekin elkarlana sustatuko dugu.

Para poder ofrecer un amplio programa de actividades culturales impulsaremos la colaboración con la ciudadanía y con el resto de los agentes.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**77**

### Kultur eragileek diru laguntzak jasotzeko oinarriak berritzea

### Renovar las bases para las subvenciones a agentes culturales

Diru publikoa elkarteei banatzeko nahitaezkoa den prozedura administratiboa jarriko dugu martxan, bai udalak bai elkarteek euren eskubide eta betebeharrak (epeak, memoria eta justifikazioak...) garbi izan ditzaten eta protokoloa erregularizatu dadin.

Pondremos en marcha el procedimiento administrativo obligatorio para que las asociaciones tengan acceso al dinero público; para que tanto el ayuntamiento como las asociaciones tengan claro cuáles son sus derechos y sus obligaciones (plazos, memoria y justificaciones...) y para que se regularice el protocolo.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**78**

### Herriko jai eta egun esanguratsuenak sustatzea

### Impulsar las fiestas y días significativos del municipio

Urte hasierako azoka (soro-feria) birplanteatuko dugu, ekimena indartzeko. Inauteriei bultzada bat eman asmoz, eragileekin proposamen berriak landuko ditugu. San Juan jaia testuinguruan jarri eta birlanduko dugu. Eta Gabon jaietarako txondorra herritarren artean egiteko auzolana antolatuko dugu.

Replantearemos la feria de año nuevo (soro-feria) para darle más impulso. Trabajaremos nuevas propuestas con los agentes para impulsar los carnavales. Contextualizaremos y replantearemos la fiesta de San Juan. Y organizaremos un “auzolan” entre la ciudadanía para formar una carbonera en Navidades.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**79**

### Herriko sortzaileen sormena sustatzea

### Impulsar la creatividad de las personas artistas del municipio

Herri bizia izatea amesten dugunez, herriko sortzaileei aukerak emango dizkiegu beraien sormena plazaratzeko. Gainera, beraien sormena aurrera eramateko azpiegiturak hobetzeko asmoa dugu. Arte eskola bizirik! ekimenarekin elkarlanean arte-eskola birformulatzeko azterketak eta ekimenak ere burutuko ditugu.

Para cumplir nuestro sueño de vivir en un pueblo vivo ofreceremos a las personas creativas/artistas del municipio la posibilidad de mostrar en público su creatividad. También queremos mejorar las infraestructuras que les ayudarán a desarrollar su creatividad. En colaboración con la plataforma Arte eskola bizirik! desarrollaremos estudios e iniciativas para la reformulación de la escuela de arte.



**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**80**

### Debako euskararen historia osatzea

### Completar la historia del euskera de Deba

Euskararen normalizazioan aurrera egin eta gure herrian euskararen galeratik berreskuratzeko egin zen lanaren balioa nabarmendu eta ezagutzera emateko baliabideak jarriko ditugu.

Vamos a posibilitar los recursos necesarios para poner en valor y dar a conocer el trabajo realizado para avanzar en la normalización y recuperación del euskera.




**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**81**

### Herriko elkarteen gida sortzea

### Crear una guía de las asociaciones locales

Udalerrian zenbat elkarte dauden kontuan izanik, guztien berri izan dezagun eta informazioa eskura izateak duen garrantzia ikusirik, gida bat sortu eta argitaratuko dugu.

Teniendo en cuenta el número de asociaciones existentes en el municipio y la importancia de disponer de información, vamos a crear y publicar una guía sobre todas ellas.




**KULTURA ETA HERRI ONDAREA**
CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO
**82**

### EPA eta Arte Eskolaren eraikinen erabilera aztertzea

### Estudiar el uso de los edificios de EPA y de la Arte Eskola

Eraikin publiko hauek hutsik edo ia erabilerarik eman gabe daudenez, berauetan zein jarduera egin daitezken aztertuko dugu, gune hauek biziberritu eta aprobetxatuz.

Dado que estos edificios públicos están desocupados o apenas tienen uso, estudiaremos las posibles actividades que se pueden desarrollar en los mismos, y conseguir así revitalizar y aprovechar dichas zonas.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN
83

### Berdintasun eta Parte-hartze teknikariaren lanpostua sortzea

### Crear el puesto de técnica de Igualdad y Participación

Egungo berdintasun teknikariak hilean 16 orduko jarduna du. Gai honek duen garrantzia kontuan izanik, eta parte-hartze teknikaririk ez dagoela ikusirik, bi arloak landuko dituen teknikariaren lanaldi osoko postu berria sortuko dugu, bi arloak gainontzeko arloekin parekatzeko asmoz.

La actual técnica de igualdad tiene una jornada laboral de 16 horas al mes. Teniendo en cuenta la importancia de este tema y viendo que carecemos de una persona técnica de participación, crearemos un nuevo puesto a jornada completa que aglutine las dos labores, con el objetivo de igualar estos dos departamentos con el resto de departamentos del ayuntamiento.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN
84

### II. Berdintasun Plana garatzea

### Desarrollar el II. Plan de Igualdad

Parte-hartze prozesu bidez, iraungita dagoen 2008-2011ko I. Berdintasun Plana eguneratuko dugu, egungo errealitatea eta beharrak kontuan izanik.

Mediante un proceso de participación actualizaremos el I. Plan de Igualdad 2008-2011, que ya ha perdido su vigencia, y lo adecuaremos a la realidad y necesidades actuales.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN
85

### Genero berdintasuna eta jasangarritasuna arlo guztietan

### Incorporar la igualdad de género y la sostenibilidad a todos los ámbitos

Udala XXI. mendera egokituz, emakumeen ahalduntzea, bizitzaren jasangarritasuna eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza sustatu eta bermatzea izango da helburua.

Vamos a actualizar el ayuntamiento al siglo XXI con el objetivo de promover e impulsar el empoderamiento de la mujer, la sostenibilidad de la vida y un mundo sin violencia contra las mujeres.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN
86

### Berdintasuna ahalbidetzeko ekintza eta proiektuak sustatzea

### Impulsar acciones y proyectos favorecedores de la igualdad

Berdintasuna sustatzeko asmoz, kontzientziazio kanpainak, indarkeria matxistari aurre egiteko ekimenak/jarduerak (autodefentsa ikastaroa) antolatu, eta aisialdia, lana, familia, bezalako arloak lantzeko proiektu ezberdinak landuko ditugu.

Trabajaremos distintos proyectos para impulsar la igualdad: campañas de concienciación, iniciativas/actividades para hacer frente a la violencia machista (curso de autodefensa) y otros proyectos en los ámbitos del ocio, el empleo, la familia, etc.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN
87

### Emakume talde ezberdinak identifikatu eta beharrak aztertzea

### Identificar distintos grupos de mujeres y estudiar sus necesidades

Deban ere mota guztietako emakumeak bizi gara. Azterketa bat egingo dugu talde ezberdinak (atzerritarrak, arrisku egoeran daudenak...) identifikatu eta beharrak aztertuko ditugu, gabezia horien araberako lanketa egiteko.

En Deba convivimos mujeres de todo tipo. Realizaremos un diagnóstico para identificar los distintos grupos (personas inmigrantes, personas en riesgo de exclusión...) y detectar sus necesidades, para poder desarrollar labores en ese sentido.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN
88

### Emakume kooperatiba sortzeko azterketa egitea

### Estudiar la posibilidad de crear una cooperativa de mujeres

Emakumeen ahalduntzea eta lan aukerak sustatzeko asmoz, kooperatiba sortzeko azterketa egingo dugu. Garbiketa, zaintza, bezalako arloetan lan egiten duten emakumeen bizi-baldintzak eta jendartea hobetzea izango da helburua.

Vamos a estudiar la posibilidad de crear una cooperativa para impulsar el empoderamiento de las mujeres y sus oportunidades de empleo. El objetivo será mejorar tanto las condiciones de vida de las mujeres que trabajan en los sectores como los de la limpieza y los cuidados como la sociedad en sí.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **89**

**Berdintasunarekin zerikusia duten aldarrikapen egunak babestu eta lantzea**

Apoyar y trabajar fechas reivindicativas relacionadas con la Igualdad

Martxoak 8: emakume langileen nazioarteko eguna. Maiatzak 17: homofobia, lesfobia eta transfobiaren aurkako eguna. Ekainak 28: sexu aniztasunaren harrotasun eguna (LGTBIQ). Azaroak 25: indarkeria matxistaren aurkako eguna.

8 de marzo: día internacional de la mujer trabajadora. 17 de mayo: día contra la homofobia, la lesfobia y la transfobia. 28 de junio: día internacional del orgullo LGTBIQ. 25 de noviembre: día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **90**

**Parte-hartze prozesuak martxan jartzea**

Poner en marcha procesos participativos

Eragile zein norbanakoekin adostutako gaiei buruzko parte-hartze prozesuak gauzatuko ditugu, udalerriaren izaera eta norabidearen oinarriak finkatzeko asmoz.

Organizaremos procesos participativos sobre temas acordados con distintos agentes o con particulares, con el objetivo de establecer las bases de la identidad y la dirección que debe tomar el municipio.




BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **91**

**Galdetegia osatu eta ekarpenak jasotzea**

Cumplimentar un cuestionario y recabar aportaciones

Udaleko jarduna baloratu eta aurrera begirako proiektuak zerrendatu eta lehentasunak markatzeko asmoz, bi urtez behin galdetegia osatu eta parte-hartze prozesua gauzatuko dugu. Gobernu Planak izaera dinamikoa izango duenez, modu honetan proiektu eta neurri ezberdinak txertatzeko aukera zabalduko dugu, legealdiko plana elikatuz.

Cada dos años realizaremos un cuestionario y abriremos un proceso de participación para valorar la actuación del ayuntamiento, enumerar los futuros proyectos y definir las prioridades. Dado que el Plan de Gobierno tiene una naturaleza dinámica, de ese modo abrimos la posibilidad de integrar distintos proyectos y medidas que alimentarán, a su vez, el plan de legislatura.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **92**

**GFAko herritarren partaidetza zuzendaritzarekin elkarlana sustatzea**

Impulsar la cooperación con la Dirección de Participación Ciudadana de DFG

Konpromiso batzuk hartuak ditugunez, beharra ere badagoenez, eta parte-hartze prozesuak martxan jarri eta babes tekniko eta humanoak lortzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko herritarren partaidetza zuzendaritzarekin harremanetan jarriak gara, elkarlana sustatuz proiektu ezberdinak aztertu eta gauzatzeko.

Ya que tenemos adquiridos ciertos compromisos y en vista de la necesidad existente y con el objetivo de poner en marcha procesos participativos y conseguir asistencia técnica y humana, nos hemos puesto en contacto con la dirección de participación ciudadana de la Diputación Foral de Gipuzkoa para impulsar la cooperación que nos permita estudiar y ejecutar distintos proyectos.




BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **93**

**Komunikazio saila sortzea**

Crear un departamento de comunicación

Gardentasuna oinarri izanik eta herritarrei ahalik eta informazio gehien helarazteko asmoz, komunikazio bulegoa jarri dugu martxan. Sare sozialak, webgunearen kudeaketa, Debaberri aldizkaria eta udal komunikazioa, oro har, indartuz.

Basándonos en el principio de transparencia y con el objetivo de hacer llegar a la ciudadanía la mayor cantidad de información posible, hemos puesto en marcha la oficina de comunicación. Este departamento servirá para reforzar las redes sociales, la gestión de la web, la revista Debaberri y la comunicación municipal en general.



BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **94**

**Auzoka parte-hartze bilkurak egiteko dinamika martxan jartzea**

Poner en marcha dinámicas para realizar reuniones participativas en los barrios

Auzo bakoitzak bere izaera eta behar propioak dituela kontuan izanik, auzokako parte-hartze batzarrak sustatuko ditugu.

Teniendo en cuenta que cada barrio tiene su propia identidad y sus propias necesidades, impulsaremos la organización de reuniones participativas en cada barrio.



**BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **95**

### Hondakinen mahaia martxan jartzea

### Poner en marcha la mesa sobre los residuos

Azken urteetan martxan egon den hondakinen mahaia indartzeko, berriz ere osatu (dendari, ostalari...) eta zaborraren bilketa hobetzeko neurriak adostuko ditugu (sailkako bilketa, zabor guneak, kale garbiketa...). Gainera, Debabarreneko Mankomunitatearekin elkarlana sendotuko dugu, kale-garbiketa eta zabor-bilketa zerbitzuak hobetzeko.

Para dar impulso a la mesa sobre los residuos que ha funcionado durante los últimos años, vamos a activarla de nuevo (comerciantes, personal de hostelería...) y acordaremos medidas para mejorar la recogida de residuos (recogida selectiva, zonas de basuras, limpieza viaria...). Además, reforzaremos la colaboración con la Mancomunidad de Debabarrena para mejorar los servicios de limpieza viaria y recogida de basuras.



**BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **96**

### "Inguruak ezagutuz" ekimena martxan jartzea

### Poner en marcha la iniciativa "Inguruak ezagutuz"

Luzaro eta Mendata ikastetxeekin batera, aste bukaera ezberdinetan udalerriko gune eta ibilbide ezberdinak ezagutzeko ekimena jarriko dugu martxan.

En colaboración con los centros educativos Luzaro y Mendata, pondremos en marcha una iniciativa para conocer distintos puntos y recorridos del municipio durante algunos fines de semana.



**BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **97**

### Uda kirola egitasmoa indartzea

### Impulsar la iniciativa Uda Kirola

Surf, bodyboard... inklusiboa sustatuko ditugu, kirol egokituari eskaintza zabaldu eta bailara ikuspegia emateko asmoz.

Impulsaremos actividades deportivas inclusivas (surf, bodyboard...), ampliaremos la oferta de deporte adaptado y para dotarla de una perspectiva comarcal.



**BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **98**

### Udalerriko puntu ilunak identifikatu eta diagnostikoa egitea

### Identificar los puntos negros del municipio y elaborar un diagnóstico

Udalerrian egon daitezkeen puntu ilunak identifikatuko ditugu eta bakoitzaren egoeraren azterketa egin, diagnostiko orokorra jasotzeko. Ondoren, neurri zehatzak finkatu eta gauzatuko ditugu, herritarron segurtasuna eta bizi-kalitatea bermatuz, arlo hauek egunerokotasunean duten garrantzia kontuan izanik.

Identificaremos los posibles puntos negros existentes en el municipio y estudiaremos cada uno de ellos para obtener un diagnóstico general. Posteriormente, estableceremos y ejecutaremos medidas concretas para garantizar la seguridad y la calidad de vida de la población, ya que ambos son aspectos de gran importancia.



**BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **99**

### Berdintasuna sustatzeko, gazteei zuzendutako programak gauzatzea

### Desarrollar programas para la juventud con el objetivo de impulsar la igualdad

Berdintasunaren gaiak duen garrantzia ikusita, eta gaztetatik gai honen presentziak kontzientziazioan izan dezakeen eragina bermatzeko, Luzaro eta Mendata ikastetxeekin elkarlanean, programa ezberdinak landuko ditugu.

Ante la importancia que tiene la igualdad y para garantizar que la presencia de este tema desde edades tempranas ayude en su concienciación, trabajaremos distintos programas en colaboración con los centros educativos Luzaro y Mendata.




**BERDINTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**
IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN **100**

### Legealdian zehar eta amaieran Gobernu Planaren balorazioa egitea

### Valorar el Plan de Gobierno a lo largo de la legislatura y al final de la misma

Gobernu Plana erreminta dinamikoa izango da, eta tartean behin balorazioa egingo dugu, zehaztutako zein neurri egin diren jakiteko eta berriak ere txertatu ahal izateko, betiere eragile eta norbanakoen parte-hartzea kontuan izanik.

El Plan de Gobierno será una herramienta dinámica, por lo que realizaremos valoraciones cada cierto tiempo para saber qué medidas acordadas se han cumplido y para introducir otras nuevas, primando siempre la participación de los distintos agentes y de las personas particulares.



# 100 egitasmo baino gehiago
## Más que 100 propuestas

**PLAN DINAMIKOA**
PLAN DINÁMICO

Gobernu Plan hau dinamikoa izango da, 100 neurri hauetaz gain, zentzuzkoa den gisa, gai gehiagori helduko diogulako, behar berriak sortuko direlako, herritarren eta eragileen ekarpenak jasotzen jarraituko dugulako.

Este Plan de Gobierno será dinámico, porque, como es lógico, además de estos 100 proyectos, habrá que trabajar con más temas, porque surgirán más necesidades, porque continuaremos recogiendo aportaciones de la ciudadanía y de los agentes del municipio.

**PLAN NEURGARRIA**
PLAN MEDIBLE

Udal Gobernu honek konpromisoa hartu du neurrien nondik norakoez eta planaren beraren betetze mailaz herritarrak informatzeko. Udal jardueran gardentasuna ezinbestekoa delako, eta gainera herritarren eskubidea delako.

Este equipo de gobierno se compromete a informar a la ciudadanía de la situación de las propuestas y del cumplimiento del mismo plan. Porque creemos que la transparencia es fundamental en la gestión municipal, y además, porque es un derecho de la ciudadanía.

**2019-2023 PLANA**
PLAN 2019-2023

Egitasmo hau 2019-2023 epealdirako da, baina indarrean jarritako proiektuek segida izango dute datozen urteetan, herritarren bizi-kalitateak eta ongizateak ez duelako etenik.

Este Plan de Gobierno se implementará durante el periodo 2019-2023, pero los proyectos puestos en marcha continuarán en los próximos años, puesto que la calidad de vida y el bienestar de la ciudadanía no tienen fin.

- ☑ Iradokizunik, proposamenik baduzu udalari egiteko?
- ☑ Kezkaren bat duzu?
- ☑ Kalean konpondu beharreko zerbait ikusi duzu?

## ESAN UDALARI

Debak zer behar duen debarrok baino hobeto inork ez daki. Horregatik, garrantzitsua da dituzun kezkak, iradokizunak... udalari bideratzea. Tresna eskura duzu, sartu esanudalari.deba.eus atarian edotа udaletxeko harreran inprimakia bete.

- ☑ *¿Tienes alguna propuesta o sugerencia para el ayuntamiento?*
- ☑ *¿Te preocupa algo?*
- ☑ *¿Has visto algún desperfecto que arreglar en la calle?*

## *ESAN UDALARI*
*(díselo al ayuntamiento)*

*Nadie sabe mejor que la ciudadanía de Deba qué es lo que Deba necesita. Por eso es importante hacer llegar al ayuntamiento las preocupaciones, sugerencias, etc. Ya tienes la herramienta, entra en esanudalari.deba.eus o rellena el formulario en la recepción del ayuntamiento.*












# Debarrei aurkeztu zaie **Gobernu plana**





Udaletxeko pleno aretoan herritarrak eta eragileen ordezkariak zeudela egin zuen Debako gobernu taldeak Gobernu planaren aurkezpena. Gilen Garcia alkateak gidatu zuen ekitaldia, gobernu talde osoa alboan zuela. Ekitaldira arte gaiarekin egin duten ibilbidearen berri eman zuen, nola joan den hezur mamitzen hasieran ideia soila zen hori, 100 neurri zehatzez osatutako lanerako dokumentu sendoa izan arte. Deba berriaz, parte hartzeaz, lankidetzaz... hitz egin zuten gobernuko kide guztiek, planak dituen bost ardatzak eta 100 neurriak azaldu zituzten bitartean.

Goizean, udal langileek ere izan zuten gobernu taldearen asmoen berri, udaletxean egin zuten batzarrean.

El equipo de gobierno presentó el Plan de gobierno en el salón de plenos del ayuntamiento, delante de ciudadanas y ciudadanos y representantes de asociaciones y movimientos sociales. El alcalde Gilen García fue el encargado de conducir el acto, acompañado de todo el equipo de gobierno. Presentó el trayecto que han realizado hasta llegar a la presentación social, como ha ido transformándose eso que era al principio una simple idea en un documento de bases sólidas formado por 100 medidas concretas. Todo el equipo habló de una nueva Deba, la participación, colaboración, etc. mientras presentaban los cinco ejes y las 100 medidas.

A la mañana la plantilla municipal conoció de primera mano las intenciones del equipo de gobierno en una reunión que realizaron en el ayuntamiento.











Deba
ETORKIZUNA ORAIN

Portu kalea 1, - 20820 DEBA
+34 943 192 840 - info@deba.eus

# **Gobernu taldearen osaera** arloak eta herritarrekiko harremanetarako bideak

Debako udaleko gobernu taldeak debarrak erdigunean jarriz garatu nahi du bere jarduna. Horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaio herritarrekiko zuzeneko harremanetarako bideak izatea. Alkatearekin zein zinegotziekin hitz egin nahi izatekotan, hortaz, udaletxeko ateak (fisikoak eta birtualak) zabalik izango ditu herritarrak, hitzordua eskatuz. Herritarrek dakite ondoen zer nolako herria nahi duten eta horren inguruan dituzten zalantza, proposamen, iradokizun eta kexak jasotzeko prest dago gobernu taldea.

El gobierno municipal de Deba quiere realizar su trabajo poniendo a la ciudadanía siempre en el centro. Le parece imprescindible contar con canales para la comunicación directa con la ciudadanía. En caso de querer hablar con el alcalde o con los concejales, todas las personas encontrarán las puertas del ayuntamiento (físicas y virtuales) abiertas, solicitando cita. Es la ciudadanía la que mejor conoce qué municipio quiere y el equipo de gobierno está dispuesto a escuchar las dudas, propuestas sugerencias y quejas que puedan tener.



**GILEN GARCIA BOYRA**
ALKATEA
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA
alkatea@deba.eus
+34 943 192 840



**ITZIAR IRIZAR BERISTAIN**
ALKATEORDEA
OGASUNA, ONDAREA ETA KONTUAK
BERDINTASUNA ETA POLITIKA FEMINISTA
itziaririzar@deba.eus
+34 943 192 840



**ARITZ LARRAÑAGA UNANUE**
ALKATEORDEA
BARNE ERREGIMENA - ONGIZATE POLITIKA - EUSKARA ETA KULTURA (JAIAK)
aritzlarranaga@deba.eus
+34 943 192 840



**ANTXON ETXEBERRIA LARREA**
HEZKUNTZA, KIROLA ETA GAZTERIA
antxonetxeberria@deba.eus
+34 943 192 840



**NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA**
EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA LANDA EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA, MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)
nereaarrizabalaga@deba.eus
+34 943 192 840



**ANTXOKA ELORZA ALTUNA**
OBRAK, ZERBITZUAK ETA INGURUMENA
antxokaelorza@deba.eus
+34 943 192 840